BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

21

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 2koa, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak modu partzialean irakasteko 2013-2014 ikasturterako emandako diru-laguntzak aldatzen dituena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2013ko uztailaren 30ean emandako Aginduaren bidez (2013ko irailaren 2ko EHAA) EAEko itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak modu partzialean irakasteko baimena ematea arautu eta berari dagokion finantzaketa ezarri zen.

Agindu beraren bidez 2013-2014 ikasturterako laguntzetarako deialdia ere egin zen.

Hori dela eta, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariaren 2013ko urriaren 24ko Ebazpenaren bidez EAEko itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak modu partzialean irakasteko diru-laguntza ematea erabaki zen. Halaber, ebazpen horren I eranskinean diru-laguntza hori jasoko duten ikastetxeak zeintzuk diren eta dagokien diru-zenbatekoa zehazten dira.

Lehen aipatutako 2013ko uztailaren 30eko Aginduaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, diru-laguntzaren lehen ordainketa deialdiaren ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, hamabost eguneko epea igarotakoan egingo da, betiere onuradun izan diren ikastetxeek diru-laguntzari berariaz uko egin ez badiote.

Horren guztiaren ondorioz, aipatutako arauen arabera eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenen arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– 2013ko urriaren 24ko Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariaren Ebazpena aldatzea. Ebazpen horren bidez itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako Heziketa-zikloak eskaintza partzialaren bidez irakasteko diru-laguntzak eman zitzaizkien 2013-2014 ikasturterako, eta ebazpen honen helburua diru-zenbateko haiek gutxitzea da. I. eranskinean gutxipen hori izan duen Escuela Profesional Comarcal Lea Artibai, Sociedad Cooperativa ikastetxea eta, ondorioz, jasoko duen diru-laguntza zehazten da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango da Lanbide Heziketako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 2a.

Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria,
RAMÓN MARÍA MARTÍNEZ DE MURGUÍA URRETA.

I. ERANSKINA

Ikastetxea	Hasierako diru-laguntza (2013ko urriaren 24ko Ebazpena)	Amaierako diru-laguntza (2013ko abenduaren 2ko Ebazpena)	Gutxipena euroak
Bizkaia			
Escuela Profesional Comarcal Lea Artibai, Sociedad Cooperativa	72.912,00 €	68.012,00 €	4.900,00 €